


LITERATURA UNIBERTSALA



SHERIDAN LE FANU

Carmilla

Maialen Berasategi

J. Sheridan Le Fanu

Carmilla

Maialen Berasategi Catalán

Itzultzailea

LITERATURA UNIBERTSALA

191

Jatorrizko izenburua:

Carmilla

1. argitalpena: 2025eko ekainean.

© Azaleko margolanarena: 2025, Alain Urrutia

© Itzulpenarena: 2025, Maialen Berasategi Catalán

© Hitzaurrearena: 2025, Maialen Berasategi Catalán

© Argitalpen honena: 2025, EREIN eta IGELA argitaletxeak

Inprimatzailea: Ulzama S.A.

ISBN: 978-84-1093-037-7

LG: D 511-2025


Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.

Liburu honen itzulpena Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartearekin Literatur Ondare Unibertsaleko Obra Nagusien Bilduma euskarara itzultzeko sinatutako hitzarmenaren barruan burutu da.



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.



JOSEPH SHERIDAN LE FANU
1814-1873

HITZAURREA

Gaztelu bat basoaren erdian

Gaztelu tantai zahar bat, bere dorre eta bere kapera gotiko eta guzti, muino batean bakartua, lubanarroa inguruan, eta, zubi altxagarri pikoaz bestalde, bidexka bat sigi-saga aurrera-aurrera doana, basoaren beltzean desagertzeraino.

Literatura gotikorik sekula irakurri ez duenari ere ondo ezaguna egingo zaio, ziur, literatura gotikoko jokaleku estereotipikoa; besteak beste, idatziak aurrez ahozkotik jaso ezinago efektibo sartu digutelako ikus-entzunezkoek gerora begi-belarrietatik barrura. Estereotipoa, ordea, ez da estereotipo jaiotzen: gaztelura darman edo (auskalo) gaztelutik ihesi doan bidexka bezain bihurria eta pintoreskoa izaten da figura bat arketipo eta gai bat topiko bihurtzerainoko bidea. Bada, ibilera luze horretan, *Carmilla* ez da inondik ere etorburua, haren egile Sheridan Le Fanuk gogotik edan baitzuen aurrekoengandik, eta, beraz, aitzindari-aitzindaria ez baita; baina mugarrria bai nolabait.

Nouvelle edo eleberri labur honen abiapuntuak ez du oso agerian uzten, beharbada, zertan den mugarritasun

hori, zeren itxuraz sinplea eta, esan bezala, ezagun samarra egingo baitzaio irakurleari: neska gazte bat eta haren aita alarguna Estiriako *schloss* batean bizi dira, mirabeen konpainia hutsean, mundutik aparte, patxadatsuegi beharbada neskaren gartzetasun irrikatsurako; halako batean, ordea, ia bate-batera iritsiko zaizkie, bizimoduaren aztoragarri zeharo, eskualdeko emakume-mordoxka bat hiltzen ari omen den izurriaren aditzea batetik, eta Carmilla izeneko neska eder gaixobera bat bestetik, zenbait gorabehera premiazko direla medio amak gazteluko zaintzapean utziko duena. Istantean, elkarren oroitzapen lauso bat piztuko zaie protagonistari eta iritsi berriari, bai eta elkarrenganako lilura bizi bat ere: erakarpen bat ezin eutsizkoa bezain siniestro.

Banpiro eder gizatiar bat mende aldakor baten ezinegonari

1816ko «udarik gabeko uda» goibel ospetsuan asmatu omen zuen Mary Shelleyk Victor Frankenstein ezmunstro gizatiarraren tormentua,¹ eta hodeitza berarenean idatzi omen zuen John Polidorik ere *Banpiroa*.²

¹ Euskaraz ere irakurgai dago, Literatura Unibertsaleko bilduma honetan txex. Iñigo Errastik itzuli zuen, 2013an, eta 2022an berrargitaratu zuten.

² Obra hark ekarri omen zuen banpiroaren figura nekazari-giroko elezaharretatik mende berriko aristokraten mundu glamourosora. Euskaraz ere badugu *Banpiroa*, 1993an itzuli baitzuen Luigi Anselmik, eta Ereingo Bartleby antzinako sailean argitaratu. Bide batez esanda, sail berean argitaratu zuen Luigi Anselmik berak Le Fanuren beste kontakizun labur bat: *Maizter misteriotsua* (1991, *The Mysterious Lodger*).

Ekaitz perfektua agian, eguraldi ezohikoaren eta mende berriko interes humano eta literarioen uztarduraren emaitza. Izan ere, egia da *terrorezko literatura gotiko* deritzona zenbait hamarraldi lehenago jaio zela³ eta banpiroaren leienda ere askoz lehenagotik zabaldua zela herri eslaviarretatik mendebaldera, baina XIX. mendea bereziki da aipagarria genero nagusiari eta banpiroen azpigeneroari bagazozkio; ez alferrik, besteak beste Samuel Coleridgeren *Christabel* poema luzeaz erdituz hasi zen gizaldi hura, eta handik 70 bat urtera, ez jakin *Christabel* inspirazio gisa harturik edo haren omenaldi gisa (edo bi gauzak),⁴ Sheridan Le Fanuk *Carmilla* argitaratu zuen, zatika aurrena *The Dark Blue* aldizkari literarioan, eta osorik gero *In a Glass Darkly* bilduman, terrorezko beste lau istoriorekin batera.

Nahiz eta, esan bezala, gaur egungo irakurleari aski ezagunak egingo zaizkion istorio honen alderdi asko, *Carmilla* berez, liburu gisa, ez da oso lan ezaguna, *herri-kultura* edo *popular culture* esaten dioten horren parte bihurtu diren beste banpiro-istorio batzuen aldean behintzat. Le Fanu bera eta haren obra, are, gutxietsi samarrak izan dira ez hain aspaldi arte. Halaz guztiz, gaur egun aditu gehienak bat datoz: *Carmillarik* ezean, ez ziren sortuko Mendebaldeko literaturako beste hainbat

³ Horace Walpoleren *Otrantoko gaztelua* nobela jo ohi da genero horren sorburutzat, eta hura 1764an publikatu zuten.

⁴ Poema bukatugabe horretan kontatzen den istorioaren abiapuntuak antz handi-handia du *Carmillaren* abiapuntuarena, edo, hobeto esanda, *Carmillarenak* du antza *Christabelena*, eta horrek pentsarazten du Le Fanuk oso ezagun zuela Coleridgeren lan hura.

eta hainbat banpiro-istorio, edo, sortuta ere, ez ziren izango gaur egun ezagutzen ditugun banpiro-istorio berberak; tartean, ezta *Dracula* bera ere, Bram Stokerrek Le Fanuren istorioa baino 25 bat urte geroago plazaratua.

Banpiroaren loa eta hazkurria, banpiroaren indar pentsaezina, azeritasuna, itxuraldatzeko gaitasuna: antzeko ageri dira ezaugarri horiek guztiak Le Fanuren lanean eta Stokerrenean.⁵ Van Helsing ospetsuaren aurrendaria ere liburu honetantxe aurkituko du irakurleak, eta *Dracularen* kontraera epistolar ikuspegi-aniztunak ere nolabaiteko oihartzuna dirudi *Carmillako* narratzaile-sorta matrioxka gisakoarena. Bi obren arteko alderik nabarmenenetakoa, berriz, banpiroaren beraren izatea da seguruenera: giza eite osoko kreaturea itxuraz xalo, ahul eta ezin ederragoa da Le Fanuren banpiroa, eta emakumezkoa, gainera; Stokerrena, berriz, tradizio zaharragoko banpiro-munstro gizonezkoa, hainbeste tolesik gabea beharbada, Isterioko Gaiztagin Petoa.

Aldeak alde eta antzak antz, ezin da ukatu banpiroek beren biktimak bezalatsu limurtu zituztela *Carmillak* eta gainerako banpiro-istorioek XIX. mendeko irakurleak. Zientzia-aurkikuntza eta teknologia-berrikuntza nabarmeneko urte haietan, naturaren eta erlijioaren

⁵ Agerikoa da, esan bezala, tradizio eslaviarretik edan zutela biek, baina, horretaz gainera, askoren ustez ez da kasualitatea Le Fanu eta Stoker biak irlandarrak izatea, ba omen da-eta irlandar folklorearen arrastorik ere haien obretan. *Carmillako* banpiroak, esaterako, aditu zenbaitek diotenez, badauka irlandar mitologiako *banshee* emakumezko espiritu gautar, eder, herio-iragarlearen antzik.

misterio gorenak indar pixka bat galtzen hasita, eta psikologiaren arloan ere ikuspegi berriak azaleratzen ari zirelarik, mundu zahar ezaguna ezarian bezain arian itsasoratuz zihoan mundu berri ezezagun batean, eta biztanleria irrikatsu eta aldi berean izukor baten jakin-minaren eta durduzaren sinbolo, jomuga eta bilgune bihurtu zen banpiroa. Lilura bat desliluraren hastapenetan.

Sheridan Le Fanu: itzaltsuagoen itzalean

Mende harexen asalduran jaio eta bizi izan zen, bada, Joseph Thomas Sheridan Le Fanu idazlea. 1814an sortu zen, Dublinen.⁶ Aita Irlandako Elizako apaiza zuen, eta familiak, eskualdeko beste familia asko baino aberatsagoa izan arren, arazo ekonomikoak ere izan zituen Hamarrenaren Gerraren⁷ ondorioz.

Lehen ikasketak tutore batekin egin zituen, baita aitaren liburutegian aurkitzen zituen aleak irakurriz ere, eta Trinity Collegen segitu zuen gero. Han piztu omen

⁶ Chapelizod izeneko herrixka batean bizi izan zen zenbait urtez (Dublingo auzo bat da gaur egun), eta hango paisaia eta inguru gotikoetan inspiratu omen zen bere istorio ugari idazteko.

⁷ *Gerra* esaten zaion arren, gaur egun desobedientzia-ekintza gisa deskribatu ohi dute askok. 1830 inguruan hasi ziren lehen liskarrak, nekazariak (Erromatar Eliza Katolikokoaren jarraitzaileak gehienak) uko egiten hasi zitzaizkionean ekoizkin batzuen etekinen hamarrena Irlandako Elizari pagatzeari.

zitzaion politikaren inguruko interesa (unibertsitateko Historical Society⁸ delakoan ere sartu zen), eta han hasi zen idazki batzuk argitaratzen ere, unibertsitateko al-dizkarian.

Aurrerago ere asko publikatu zuen beste zenbait al-dizkaritan: kazetaritza-artikuluak, istorio laburrak, eta, *Carmillarekin* egin zuen bezala, kontakizun luzexeagoak ere bai, zatika, gero zenbaitetan bildumetan osorik argitaratu zituenak. Haren mamu- eta misterio-ipuinek eta beldurrezko kontakizunek izan zuten harrerarik beroena, baina, hala ere, lehenago ere aipatu bezala, bizi zen bi-tartean Le Fanuk ez zuen izan beste idazle gailen batzuek adinako itzala.⁹

1840tik aurrera, ahaide hurko asko galtzen hasi zen: arreba hil zitzaion 1841ean, ama 1861ean, eta, bi heriotza haien artean, 1858an, emaztea ere bai, Susanna Le Fanu, pairamen handiz hil ere nonbait, gaitz mentalen batek joa. Emakume maite haien guztien oinazeak eta galerak zuzenean eragin bide zion Le Fanuren idazketaren jarioari, eta, zenbait adituren ustez, baita haren idazmoldeari eta idazgaiei berei ere.

⁸ Ikasle-eztabaidagune bat, gaur egun munduko ikasle-elkarterik zaharrentzat jotzen dena. Le Fanuz gain, beste pentsalari eta idazle ezagun batzuk ere izan dira hango kide, hala nola Oscar Wilde, Samuel Beckett eta Bram Stoker bera, bai eta idazle modernoagoak ere gerora, tartean Sally Rooney.

⁹ Aurrerago, M.R. James terrorezko istorioen idazleak berreskuratu eta aldarrikatu zuen haren obra, eta horri esker bihurtu zen, nolabait ere, kanonikoago.

Andre viktoriar otzanaren akaberaren hasiera

Hala inguruko emakumeen sufrimendua nola emaztearen heriotzagatik sentitutako kulpa, beraz, ez dira kontu hutsalak Sheridan Le Fanuren obra aztertu nahi duenarentzat: tradizioak eta joera literarioak ez ezik, bizipen pertsonalak ere bultzatu zuen, antza, bere pertsonaia emakumezkoak sarri emozionalki hebaindurik erretratatzera, besteak beste *Carmilla* honetan. Neska desanparatuak, amagabeak, gorputzez ez ezik buruz ere maskalduak. Kasu jakin honetan, banpirismoa bera dateke gaitz mental suntsigarriaren kausa eta adierazpena.

Dena dela, ez da hori istorio honetako banpirismoaren sinbologiaren hipotesi bakarra. Ausarkeria litzateke esatea tradizio gotikoan banpiro emakumezkoak gauza arrotza edo guztiz atipikoa izan direla, baina Le Fanuren hautu ez noski ausazko hori, banpiro gizonaren partez banpiro emakumea aukeratzekoa alegia, esanguratsutzat daukate adituek. Izan ere, liburu honetan, funts-funtsean, transformazio bat ageri da, neska gazte baten aldakuntza, eta XIX. mendean ere ari zen gertatzen, edo gertatu nahi eta ezinean, beste eraldaketa garrantzitsu bat: emakume viktoriar zintzoaren eredua antzaldatzen ari zen pixkanaka, eta bazetorren *emakume berria*, ez jakin zehazki noiz, ez jakin zehazki zer tanke-ratan, baina ukaezina zen etorri bazetorrela, besteak beste hezkuntza- eta ekonomia-arloetan libertate handixeagoa eskuratu nahian baitzebiltzan emakume ugari.

Hori, jakina, mehatxu zuzen-zuzena zen ordura arteko *statu quo*a iraunarazi nahi zutenentzat, eta idazle

dezentek islatu nahi izan zuten gatazka hura beren lanetan; baita, antza denez, Le Fanuk berak ere.

«Zure bizi bero-beroak bizi nau ni»

Estereotipoak aipatu ditugu hitzaurre honen hasieran, eta estereotipoak beti du lagun dikotomia: etxeko aingeru otzana *versus* sorgin edo banpiro edo dena delako munstro perbertsoa; emazte zintzo uzkurra *versus* piztia histeriko desiraduna. Nekez hitz egin daiteke *Carmillaz* desirari buruz hitz egin gabe.

Banpiroa eta haren biktima, istorio honetan, biak dira desiratu eta biak desiragarri; baina, hori baino askoz gehiago, biak dira desiratzailerak. Elkarrenak. Izan ere, desira, istorio honetan, homoerotikoa da. Erakarmen zorua, ezinegona, sentsualitatea, arnasestua, irrika, angustia: pasio peto-petoa, bi neska gazteren harreman argi-itzaltsuan mamitua.

Gaurko leiarretatik begiratuz gero, oso apurtzailea iruditu dakiguke hain aspaldiko kontakizun batean halako pasio-istorio lesbiko bat agertzea, eta ezin esan hala ez denik; baina gogoan hartzekoa ere bada ezen garai hartan, besteak beste literaturak eman dizkigun adibide ugarietan agerian geratzen denez, ez zela hain ezohikoa ere emakumeen arteko amodio noiz platoniko noiz erromantiko noiz are haragokoa agertzea, maiz (egia da hau ere) maitasun inozente eta kaltegabetzat harturik.

Gaurko leiarretatik begiratuz gero, aldi berean, erraz lerra gintezke pentsatzera banpiro honen perbertsioa

askapen gisa eta gizonen menderatutako sistema baten asaldagarri gisa planteatuta dagoela; halaxe iradokitzen dute, besteak beste, istorio honi azken urteetan egin zaizkion bertsio eta egokitzapen dezentek,¹⁰ eta zilegi da, jakina, interpretazioa; bueltan-bueltan, ordea, guztiz kontrakoa ere interpreta liteke, hau da, idazlearentzat anomalia mespretxagarri bat zela banpiro honen perbertsioak sinbolizatzen zuen guztia: zeharo deuseztatu beharreko izurri bat, alegia.

Lausoaren xarma

Egia esanda, ordena finkatuaren nolabaiteko desordena hori zer asmo zehatzekin ageri den *Carmillan*, hots, liburu hau salaketa den edo aldarria den edo bietako ezein ere ez den, hori irakurleak berak irudikatu beharko du, aieruak aieru orain arte behintzat ezin izan baita jakin zein izan zuen Le Fanuk burubidea, xede literario guztiz printzipaletik haragokoa, esan nahi baita. Lausotasun horretan ere bai baitago xarma, nahiz eta maiztxo besterik iruditutako dakigukeen gaur egun, interpretazio unibokoez eta ulermen gotorrez besteko guztia kikirilgarri samarra zaigun garaiotan.

Ezin ahaztekoa da, azken batean, zer-nolako garrantzia duten liburu honetan lausotasunak eta anbiguotasunak,

¹⁰ *Carmillan* ezin konta ahal bertsio egin dituzte urteetan, formatu askotarikoetan: filmak, telesailak, antzezlanak, nobela grafikoak, haur eta gaztetxoentzako liburu egokituak...

zentzu guztietan. Le Fanu maisua zen horretan. Banpiroa transgresioa da, sozialki ez ezik biologikoki ere ezinezkoa dena gainditzearen sinboloa, baina argi dago banpiroaren bazter-bizitza eternala garestitxo ere ateratzen zaiola biktimari ez ezik erasotzaileari ere. Banpiroa gizakia da, baina ez da. Erakargarriro izugarria da. Haren galbidean aurkitu gogo du biktimak bakea. Are: biktima, agian, ez da hain biktima ere, *aukeratua* baizik. Ez al da, ba, banpiroaren hozkada, den-dena bat, mina eta estasia, heriotza eta salbazioa? *Nahi-dut-baina-ez-dut-nahi* bat: ameskizun ito bat, mundu honetakoa ez dirudien plazer baten iturria.

Ausartzen denarentzat, horra hor gau ilunean, gazteluko ate nagusian, zirrikitu bat zabalik.

Maialen Berasategi Catalán

J. Sheridan Le Fanu

Carmilla

AITZINSOLASA

Kontakizun honi erantsitako paperean, Hesselius doktoreak idatzitako ohar bat dago, ohar bat aski landua, barne hartzen duena erreferentzia bat ere, eskuizkribuak argitara dakarren afera bitxiari buruz doktoreak ondu duen idazlanarena.

Idazlan horretan, ohi bezain jakintsu eta zoli jorratu du doktoreak afera misteriotsu hau, inolako itzulingururik eta soberakinik gabe. Gizon guztiz bikain horri bildu zaizkion izkribu-sortetatik bakar bat baino ez da hau.

Afera honetan «jantziak ez daudenen» jakingarri baizik eman asmo ez dudanez kasu honen berri liburuki honetan, ez dut batere esku sartuko istorioa kontatzen duen dama buruargiaren esanotan; eta, behar bezala goetatuta, ebatzi dut ez dudala aurkeztuko, halaber, doktore jakintsuaren arrazoibidearen inolako laburpenik, ez eta txatalik nabarmenduko ere hark auzi honen inguruan adierazitakoen artetik, auzi bat haren esanetan «beste zenbait gairen artean argitara dakartzana, segur aski, gure existentzia dual honen misteriorik sokenetako batzuk, bai eta misterio horien bitartekariak ere».

Idazki hau aurkitu nuenean, irrika bizia piztu zitzaidan berriz ere irekitzeko duela hainbeste urte Hesselius doktoreak eta haren informatzaile itxura guztien arabera hain bizkor eta zuhurak elkarri bidalitako gutunak. Erabat nire tamalgarri, ordea, jakin nuen ordurako hila zela informatzailea.

Nolanahi den, bestela ere ezingo zion seguruenik ezer askorik gehitu hurrengo orrialdeotan nire uste apa-lean hain jabetuki eta xehe kontatu zuenari.

I

Izualdi goiztiar bat

Inondik ere handikiak ez izanagatik, Estirian gaztelu batean bizi gara gu, *schloss* batean. Errenta koxkor bati, munduko paraje honetan, probetxu ederra ateratzen zaio: urtean zortziehun-bederatziehun, eta atarramentu galanta. Jaioterrian, berriz, nekez izango ginen aberatsenen artean. Ingelesa dut aita, eta ingelesa dut izena ere, baina Ingalaterra bera ez dut sekula ikusi. Hemen, paraje bakarti eta primitibo honetan, hain zoragarriro merke dago den-dena, ezen ez baitzait iruditzen diru gehixeagorekin ere bizimodu askoz erosoagoa izango genukeenik, edo are luxuzkoagoa.

Aita Austriako armadan ibili zen bere garaian, eta erretiratzean, pentsio bat gelditu zitzaionez eta bazituenez ondasun batzuk, egoitza feudal hauxe erosi zuen, lursail koxkorra barne: sekulako mauka.

Leku hau baino pintoreskoagorik eta bakartiagorik ez da. Muinoxka baten gainean dago gaztelua, baso batez inguratua. Bidea zahar-zaharra da, estua, eta zubi altxagarri bat du aurrez aurre, nire garaian sekula goraturik egoten ez zena, baita lubanarro bat ere, perkaz betea, hainbat zisne bertan igerian eta igebelardi zuriak ur-azalean.

Eta den-denaren buru, gazteluaren fatxada leiho ugarikoa, bere dorre eta bere kapera gotiko eta guzti.

Atari nagusiaren inguruan, basoa modu irregular eta zinez pintoreskoan soildua dago, eta eskuinaldean, berriz, zubi gotiko maldatsu batek berekin darama bi-dea erreka gainetik, zeina sigi-saga baitoa basoaren itzal beltzetan barna. Esana dut leku bakartia dela hau, bakartia oso. Egiatan ari ote naizen, zerorrek juzga. Ataritik bidera begira jarrita, gazteluaren inguruko basoa hamabost milia hedatzen da eskuinalderantz, eta hamabi milia ezkeralderantz. Herri habitaturik hurbilena ezkerretara dago, zazpi milia ingurura, zuen milia ingeles horietan zenbatuz gero. Eta lotura historikoren bat izan duten gaztelu habitatuaren artean, berriz, Spielsdorf jeneral zaharrarena dago hurbilena, ia hogeita milia eskuinaldera.

«Herri habitaturik hurbilena» esan dut, bai, badago eta beste bat aurritua gertuago, Spielsdorf jeneralaren gaztelurako bidean hiru milia mendebaldera, bere elizatzat bitxia eta guzti, zeinak teilatua eroria baitu orain, alboko habeartean dautzala karnsteindarren familia handientsuaren hilobi usteltzen hasiak. Galduta da jada leinu hura, baina bere garaian izan zuen gaztelu bat, orain orobat hondatua, basoaren sarrian, herriaren hondakin isiletara begira.

Halako leku txundigarri eta malenkoniatsua bertan behera zergatik utzia dagoen, bada elezahar bat horren berri ematen duena, baina kontatuko dizut aurrerago.

Orain, izan ere, beste zerbait azaldu behar dizut: alegia, zeinen gutxi garen gure gaztelu honetako bizikideak.

Ez ditut zenbatuko mirabeak ez beste zerbitzariak ere, gazteluari erantsiriko eraikinetako geletan bizi direnak. Entzun adi, eta ea zer deritzozun! Nire aita da gaztelu honetako bizikideetako bat, munduko gizonik atseginena, baina adinean sartzen hasia; eta ni naiz bestea, istorio hau gertatu zen garaian hemeretzi urte besterik ez nuena. Joan dira zortzi harrezkerotzik.

Aitak eta biok osatzen genuen, beraz, gazteluko familia. Ama, dama estiriar bat, umea nintzela hil zitzaidan, baina izan nuen hazama bat, aiurri on-onekoa, oker ez banago haurtxoa nintzenetik egon zena nire ondoan. Haren aurpegi mardul amultsua, behintzat, betidanik izan dut oroimenean, irudi ezagun: hori hala izan ez den garairik ez daukat gogoan.

Madame Perrodon zen hazama hura, Bernakoa sortez, eta haren zaintzak eta aiurri onak konpentsatu zidan hein batean amaren galera, amaz ez bainaiz batere gogoratzen, hain galdu nuen-eta goiz. Gure afal-festa xumeetan, beraz, Madame Perrodon izaten genuen hirugarren afaltiarra. Eta bazen laugarren bat ere, Made-moiselle De Lafontaine, oker ez banago zuek «hazama institutriz» esaten diezuen andre horietako bat. Frantsesez eta alemanez egiten zuen hark; Madame Perrodonek, berriz, frantsesez eta halako ingeles murduskatu batez; eta aita eta biok, gu bai, ingelesez aritzen ginen, egunero-egunero aritu ere, partez hizkuntza galdu nahi ez genuelako, partez abertzaletasunez. Horren guztiaren ondorioa zein zen? Bada, Babel moduko bat, kanpotarren ohiko barregarria, eta kontakizun honetan islatzen saiatuko ez naizena. Bizikide horiez guztiez gain,

bestalde, banituen bizpahiru neska adiskide, nire eda-detsukoak, tartean behin luzerako zein laburrerako bisitan etortzen zitzaizkigunak, eta ni ere joaten nintzen haienera inoiz.

Horra, bada, zenbat jenderekin genuen harremana egunerokoan. Jakina, izaten genituen bestelako bisita batzuk ere noizean behin, gugandik bospasei legoa eskasera bizi ziren *auzokideenak*. Baina, hala eta guztiz ere, bizimodu aski bakartia nuen nik garai hartan, ez dezazula besterik pentsa.

Neska mainatu samarra nintzen, guraso bakarrak den-denean neurea egiten uzten baitzidan ia beti; hortaz, nire zaintzaile burutsu haiek, pentsatuko duzun bezala, ahal zuten heinean baino ez ninduten lotzen soka motzean.

Nire bizialdiko lehen gertakizun nabarmenak impresio izugarria eragin zidan, eta ez zait sekula ahaztu: gogoan ditudan aurren-aurreneko gorabeheretako bat izan zen hura. Agian guztiz hutsala irudituko zaio norbaiti, inondik ere ez hemen kontatzeko bezain garrantzitsua; baina luze gabe ohartuko zara, ohartuko zarenez, zergatik kontatzen ari natzaizun. Haurren gela (halaxe esaten genion, nahiz eta neuretzat bakarrik neukan oso-osorik) gazteluko azken solairuko gela bat zen, handi-handia, haritz-sabai makurtukoa. Nik orduan ez nuen izango sei urte baino gehiago. Gau batean esnatu egin nintzen, eta, ohetik gelara begiratuta, ez nuen han ikusi ez umezaina, ezta umezain laguntzailea ere; beraz, pentsatu nuen bakarrik nengoela. Egia esan, ez nintzen batiere beldurtu, zeren ume alaia bainintzen ni, eta berariaz

eta asmo sendoz sekula ez baitzidaten kontatu ez mamu-istoriorik, ez maitagarri-ipuinik, ez eta halako beste herri-sinesmenik ere: hau da, sekula entzun gabeak nituen istorio horiek denak, burua izarapean sarrarazten digutenak ateak bat-batean kirrinka egiten duenean edo itzali hurren den kandela baten dardarak oheko zuta-beetako baten itzala horman dantzarazi eta aurpegira hurbiltzen digunean. Hala eta guztiz ere, ezin sinetsita nengoen, eta suminduta ere bai, iruditzen baitzitzaidan hantxe abandonatuta utzi nindutela, eta, beraz, intzirika hasi nintzen, alarau-aldi bizi bati ekiteko prest. Orduantxe, ordea, nire harrigarri, aurpegi bat ikusi nuen, narea baina oso ederra, ohe ondotik niri begira. Neska gazte bat zen, hantxe belauniko, eskuak ohazalaren azpian sartuta. Atseginezko lilura halako batean, begira geratu nintzaion, intziriarri utzita. Hark laztan egin zidan, eta ondoan etzan zitzaidan, eta beregana erakarri ninduen, irribarrez; horrek goxo-goxo baretu ninduen berehala, eta lokartu egin nintzen berriz. Halako batean, baina, kolpean esnatu nintzen, sentituz bi orratz bat-batera sartuak zizkidatela bularrean, oso sakon, eta oihu egin nuen ozen. Neskak atzerantz egin zuen orduan, niri begira-begira; lurrera lerratu, eta ohe azpian ezkutatu zen, edo hala iruditu zitzaidan behintzat.

Orduan bai, orduan benetan izutu nintzen lehen aldiz, eta deiadarka hasi, hortz eta bihotz. Umezaina, haren laguntzailea, etxezaina, denak etorri ziren lasterka, eta kontatu nien kontatu, baina haiek, gertatuari garrantzia kendu, eta ni baretzen saiatu ziren. Ni, ordea, umea bai, baina ohartu ere bai larriminez zurbil zeudela

denak, ezin disimulaturik, eta hantxe ikusi nituen ohe azpian begira, eta gelan barrena, eta mahaipetan kirika, eta armairuak irekitzen. Halako batean, etxezainak honela esan zion umezainari: «Jarri eskua hemen, oheko sakonune honetan: etzan, etzan da norbait hemen, eta ez zara noski zu izan; epela dago oraindik».

Gogoan dut nola umezain laguntzailea laztanka aritu zitzaidan, eta hirurak gero niri bularra aztertzen, sastada sentitu nuela esan nien tokian, eta nola azkenean irmo esan zuten ez zegoela, bada, halakorik gertatu zitzaidalako inolako zantzurik.

Gau osoan, hala ere, tente eta erne egon ziren bai etxezaina eta bai haurren gelaz arduratzen ziren bi mirabeak. Are: harrezkeroztik, beti-beti egon zen zerbitzariren bat halaxe haurren gelan, harik eta hamalau bat urte bete nituen arte.

Gertatutakoa gertatuta, kirioak dantzan ibili nintzen luzaroan. Mediki bati ere hots egin zioten, gizon zurbil eta zahar bati. Ezin hobeto gogoratzen naiz haren aurpegi luzanga, goibel eta baztanga-pikatu samarraz, baita haren ileorde gaztaina-koloreaz ere. Bolada ez batere labur batez, egun biz behin etorri eta botika batzuk eman zizkidan; eta niri, noski, batere-batere gustatu ez hori.

Agerkunde hura ikusi eta biharamun goizean, laborriak jota nengoen, ezin eraman lipar batez ere bakarrik gelditzea, ezta egun-argiz ere.

Gogoan dut nola aita gelara igo eta ohe ondoan geratu zitzaidan, hantxe zutik, alaitsu berriketan, eta nola zenbait galdera egin zizkion umezainari, eta nola gogotik barre egin zuen haren erantzun baten kontura; gogoan dut

nola sorbaldako leun batzuk eman zizkidan, eta musu ere bai, eta nola esan zidan ez beldurtzeko, ametsa besterik ez zela izan eta ezin zidala minik egin.

Baina horrek ez ninduen lasaitu, ederki bainekien emakume arrotz haren bisita ez zela inondik ere ametsa izan; eta, beraz, bai: beldurrak jota nengoen, izugarri gainera.

Umezain laguntzaileak lortu zuen agian ni pixka bat kontsolatzea, inolako duda-izpirik gabe esanez bera izan zela han azaldu eta niri begira egon eta ondoan etzan zitzaidana, eta erdi ametsetan egongo nintzela eta seguru asko horregatik ez nuela ezagutu haren aurpegia. Kontakizun hark, ordea, umezainak ere berretsi zidan arren, ez ninduen batere konbentzitu.

Gogoan dut nola egun hartan gizon zahar agurgarri bat etorri zen gelara umezainarekin eta etxezainarekin batera, sotana beltzez jantzita, eta nola haiekin hizketan egon zen pixka batean, baita nirekin ere, oso atsegin; aurpegi ezti samurra zuen, eta esan zidan otoitzean hasiko zirela, eta bi eskuak bat egin zizkidan, eta eskatu beraiek errezoan ari ziren bitartean zera esateko nik, emeki-emeki: «Entzun, jauna, gure aldeko otoitz zintzo hauek, Jesusen izenean». Uste dut horiexek zirela hitzak, bai, zeren gerora maiz errepikatu bainituen nire artean, eta umezainak ere urteetan esanarazi baitzizkidan otoitz-garaian.

Oso-oso gogoan geratu zitzaidan gizon zahar ileurdin haren aurpegi ezti pentsakorra, hantxe bera sotana beltza soinean, sabai garaiko gela marroi zartzail hartan, hirurehun urte lehenagoko modaren arabera egindako

altzari landugabe haiek inguruan eta argi ilaun hura burdin sarean zehar barrendurik gelako giro itzaltsuan. Be-launiko jarri zen, eta hiru emakumeak ere harekin bat, eta goraki egin zuen otoitz ahots zinezkoz eta dardaratsuz, luzaroan gainera, iruditu zitzaidanez. Hori baino lehenago zer gertatu zitzaidan bizitzan, ahaztua zait den-dena, eta ondorengo garaia ere lauso ageri zait gogoan; aldiz, kontatu berri ditudan gertakari horiek bizi-bizi dauzkat oroimenean, ilunak inguratutako fantasmagoria baten irudi bakan.

AURKIBIDEA

<i>HITZAURREA</i>	7
Aitzinsolasa	19
I. Izualdi goiztiar bat	21
II. Gonbidatu bat	29
III. Elkarri kontatzen	41
IV. Haren ohiturak: paseotxo bat	53
V. Antz txundigarria	69
VI. Agonia zinez bitxi bat	75
VII. Gainbehera	83
VIII. Bila	93
IX. Medikua	99
X. Atsekabetuta	107
XI. Istorioa	113
XII. Eskaria	121
XIII. Egurgina	129
XIV. Enkontrua	137
XV. Sufrikarioa eta exekuzioa	145
XVI. Amaiera	151